



## San Migel parroquia barrutik orain dala 70 bat urte

**S**anmigel eta Errosarixotako jaixak be heldu xaku, ba; aurten danak illaran, eten barik. Aitzakixa hau aprobetxauaz, parrokiaren antxiñatxoko fotografia hau dakartzuegu. Gerraosteko lehenengo hamarkada ingurukua izango da. Hurrenguan, 1955etik aurrera batez be, aldaketa sakon samarrak burutu ziran Oñatiko eliza nagusi horretan, Reyes Korkostegi alkatiaren garaian. Hona argazkixan ikusi leikien batzuk:

- Elizan aurrekaldeko hiru aldare eta erretablo haundixak ez ezik, beste txiki asko egozen, han-hemenka sakabanatuta. Batzuk lekuz aldatu egin ziran eta beste batzuk kendu.

Azken honein artian interesgarrixenetako bat San Nikolasena zan: ezkerraldian agiri da, erraja platereskuaren onduan eta zutabetzar borobillari egokittuta; unibersidadian eta Oñatiko beste leku batzuetan jardundako Piarres Picart eskultore famauak erretablo honetan be parte hartu ei eben XVI. gizaldixaren erdi aldera; irudi batzuk Oñatin gordeten dira eta pare bat Donostiako elizbarrutiko museora eruan ziran eta gaur egun Santa Mariako elizan dagoz.

Eskumaldian, pulpittua eta Errosarixoko kapillako errajiaren artian San Pedroren aldaria ikusten da. Hau etzan kendu, lekuz aldatu baiño; haruntzatxuago jarri euen, klaustro aldera.

- Aldaria izan barik, parrokixan batera eta bestera ibili izan dan beste momumentu inportante bat Gebarako jaun baten hillo-bi dotoria da. Hemen Errosarixoko kapilla barruan somaitten da, eskumako hormiaren kontra. Handik urte batzuetara aldare nagusixaren azpira aldatu euen, kriptara, eta hantxe jarraiketan dau oñatiarren eta turista kanpotarren ikusgai.

- Beste kanbixo aittagarri bat jarlekuena izan zan. Hori 1960ko hamarkadan gertatu zan. Lehenago gizakumiak eta emakumiak aparte egoten ziran elizetan: gizonendako, parrokixan bost bat banku-illara egozen aurrekaldian, erdiko nabian, ezkerrian nahiz eskuman; korupeian be beste batzuk ziran zirkulu erdi bat egiñaz. Emakumiak, berriz, bakarkako aulki txikittan egoten ziran; batzuk partikularrak ziran, izen eta guzti. Elizan sartzerakuan, gizonak txapela erantzi bihar izaten euen, eta emakumiak mantillia jantzi.

- Baiña, biharbada, fotografixan agerketan dan aldakuntzarik nabarmenena eskumako arkutzar horrena da. Ezagun dau zein garaittakua dan: barroko txurrigereskua bete-betian. Organo barrixari eusteko jaso zan 1749xan. Migel Salezanek egin eben trazia, eta Juan Bautista Jauregi eta Gregorio Amiana hargiñak gauzatu zittuain tailla-lanak. Organua 1950ko hamarkadan koru barrenera eruan zanian, arkuia alargun samar geratu zalako, orain daguen lekura aldaketia erabagi zan, sakristixa aurrera. Etzan lan makala; Manuel Vasconcelos hargin portugaldar ospetsu eta zaratatsuaren ardurapeian hasi zan, baiña burutu aurretik herri-ttik alde egin eben eta Jabier Bikuña Albarritza hargin gaztiak emun bihar izan otsan errematia.

J. E.